

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Kautelazko neurria hartuta, bertan behera geratu da independentziari buruzko kontsulta herrikoa egiteko Etxarri Aranazko erabakia

Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiak erabakia bertan behera uzteko prozesuak eragindako gastu judizialak ordaintzera zigortu du udala.

Jueves, 19 de septiembre de 2013

Administrazioarekiko Auzien Iruñeko 2. Epaitegiak, kautelazko neurria hartuta, Etxarri Aranazko Udaleko osoko bilkurak iragan maiatzaren 10ean hartutako erabakia bertan behera uztea adostu du. Udalak hartutako erabakia herrian kontsulta herrikoi bat egitea izan zen, honako galdera hau eginez: "Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?".

Autoaren arabera, neurria mantendu egingo da epai irmoa eman arte. Epai horrek amaituko du Nafarroako Gobernuak aipatutako udalaren erabakiari aurka egiteko hasitako prozesu judiziala. Halaber, Etxarri Aranazko Udalak kautelazko neurria hartzeko izapideek eragindako gastuak ordaindu beharko ditu.